



INSTITUTO CHINO DE GIPUZKOA  
GIPUZKOAKO TXINATAR INSTITUTUA

## PRENTSA OHARRA

# Txinera ikasten ari diren 10 euskal ikasletik 8k gainditzen dituzte mandarineko azterketa ofizialak

**\*Bilboko eta Gipuzkoako Txinatar Institutuak antolatutako probak abenduaren 6an izan ziren Euskalduna Jauregian**

**\*Ehun txinera ikasle inguru bildu ziren; horietatik 8k hamar bati dagokion nota atera zuten**

15/01/17

Azken txinera-azterketetara aurkeztu diren 10 euskaldunetik 8k gainditu dituzte proba horiek, Bilboko eta Gipuzkoako Txinatar Institutuek egin duten estatistikaren arabera. Deialdia abenduaren 6an izan zen Bilboko Euskalduna Jauregian eta ehun pertsona inguru bildu zituen. Emaitzen artean azpimarragarria da 8 pertsonak azterketa biribila egin zutela hamar bati dagokion nota lortuz.

Idatzizko azterketetan ikasleek ulermen-, irakurmen- eta idazkera-ariketak egin behar izan zituzten zailtasun maila desberdina izanda azterketa mailaren arabera. Ikasleen gehiengoak hasierako eta erdiko mailak lortu zituzten azterketetara aurkeztu zirenean, baina aurreratuenetara aurkeztu zirenak ere egon ziren, azkenekoa (HSK 6) barne. Azken maila hori gainditu ahal izateko txinerako 5.000 hitz baino gehiago ezagutu behar dira eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C2a balio berekoa da.

Gauza berdina gertatu zen ahozko azterketetan, elkarrizketa maila egiaztatzen duen titulua lortzeko egin beharreko probak. Kasu horretan, dauden hiru mailak eskeini ziren: oinarrizkoa, erdiko eta aurreratua, eta aipatutako lehen bi mailak izan ziren matrikula gehienak.

Bilboko deialdian, batez ere, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabatik etorritako txinera-ikasleek hartu zuten parte, baina baita beste zenbait lurraldetatik iritsitakoek ere; hala nola, Nafarroa, Kantabria edo Madriletik.

Txinatar Institutuak finkatu ditu jada txinera-azterketa ofizialetarako hurrengo deialdietarako datak eta honako hauek izango dira: maiatzak 30 ume eta gaztetxoentzat eta ekainak 14 helduentzat.



INSTITUTO CHINO DE GIPUZKOA  
GIPUZKOAKO TXINATAR INSTITUTUA

Azterketa ofizialak Txinera Atzerritar Hizkuntza Hezkuntzarako Bulegoak (HANBAN) kalifikatzen ditu. Azterketa horiek aukera ematen dute txinera ahozko zein idatzizko maila egiaztatzen dituzten titulu ofizialak eskuratzeko. Horiek ezinbestekoak dira Txinako Fakultateetan sartzeko eta oso baliagarriak Asiako herrialde horretan lan egiteko. Txinera jakitea eskatzen duten instituzio, erakunde eta enpresa guztiek erreferentzia bezala hartzen dituzte titulazio horiek.

---

Raquel Rodríguez  
Komunikazio Arduraduna  
Elkano 8, behe-solairua  
20004 Donostia  
638 426 502 / 943 431 789  
[raquel.rodriquez@institutochinogipuzkoa.com](mailto:raquel.rodriquez@institutochinogipuzkoa.com)

[www.institutochinogipuzkoa.com](http://www.institutochinogipuzkoa.com)

